# TopaGune: Ekintza komunitarioa bazterretatik eta absentzietatik



## 11.Sep - 12.Sep 2023

### Cod. G21-23

**Mod.:**
Streaming Face-to-face

**Edition**
2023

**Activity type**
Summer course

**Date**
11.Sep - 12.Sep 2023

**Location**
Miramar Palace

**Languages**
Basque Spanish

**Academic Validity**
20 hours

### Organising Committee

# Description

Erik Klinenbergek ezagun egin duen azpiegitura komunitarioaren kontzeptuak ekipamendu publikoek eta elkarte-sareak eguneroko harremanak egituratzeko duten zereginari lotzen dio, komunitateei gure gizarteek dituzten erronkei aurre egiten laguntzeko. Klinenbergen tesiaren funtsezko elementu bat da azpiegitura sozialaren subjektu egituratzaileak ez direla soilik erakundeak, baizik eta herritar antolatuetatik sortzen diren ekimenak ere.

Premisa hori oinarri hartuta, ikastaro honen helburua da gizarte-azpiegitura ehuntzeko erakundeek zein elkarte-sareak bultzatutako ekintza komunitarioaren erronka eta aukeretara hurbiltzea. Hori dela eta, partaidetza eta ekintza komunitarioaren bi logika desberdin aztertu behar dira: alde batetik, zuzenean erakundeen egitekora bideratzen duena; bestetik, behetik gora azaleratzen dena eta herri mugimenduen eskutik espazio publikoan sartzen dena. Uda kastaro honetan, premisa hau hartu dugu abiapuntutzat: ekintza komunitarioa abiarazi nahi dute biek, demokrazia hobetzeko, zatituta dagoen demoa artikulatuz. Baina onartzen dugu artikulazio horrek, batez ere, absentziak mugiarazi behar dituela, eta herritarrek konpromiso zibikoa har dezaten lortu behar dela, “nire beharrez” haratago “gure beharretatik” aritzeko ikuspegia elikatuz. Eta absentziak -batez ere ahulenak- presentzia bihurtu nahi dituen igarobide horrek politikagintzaren, osasunaren, etxebizitzaren, artearen edo hezkuntzaren bazterretatik etor daitekeen politizazioa behar du. Hala ere, espazio horiek ekintza komunitario baten erdigune dira, eta ekintza horren helburua hutsuneak edo absentziak ikusaraztea eta ongizate kolektiboan politikaren lehentasunak berreskuratzea da.

Begiradak

Uda ikastaro honen bidez, ekintza komunitarioa hiru ikuspegitatik (instituzionala, elkarte-arlokoa eta pertsonala) nola adierazten den ikusarazi nahi da, dimentsio politikoa bazterretatik berreskuratu nahi denean, hutsuneak betetzeko.

Alde batetik, ekintza komunitarioan aurrera egiteko, Gipuzkoako Foru Aldundiak, jorratutako proposamena: 5 printzipio estrategiko eta 7 printzipio metodologiko identifikatzen dituena. Ildo horren baitan, ikastaro honetan esperientzia instituzional interesgarriak aurkeztuko dira hezkuntzan, osasunean, bizikidetzan edo lurraldearen kudeaketan.

Bestalde, herri mugimenduek aitortu beharreko gaitasuna erakutsi dute sare komunitarioak egituratzeko garaian. Alda (Iparralde), Basoa –Defendatzaileen etxea- (Artea) edo Astra (Gernika) gizarte-mugimenduen esperientzian oinarrituta, euren gizarte-oinarria nola zabaltzen duten, sareak nola ehuntzen dituzten edo erakundeekin nola erlazionatzen diren aztertuko dugu.

Azkenik, indibidualtasunetik komunaren aldeko apustura igarotzea ahalbidetzen duten prozesuak esperientzia indibidualen bidez ezagutzea interesatzen zaigu. Eta, bereziki, gure gizarteko sektorerik ahulenen absentziak irudikatzen dituzten begiradetatik aztertu nahi dugu. Horrela, adinekoen, legez kanpoko emigratzaileen, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeen eta baztertuen bizi-ibilbidean oinarrituta, ertzetatik sortzen diren lidergoak artikulatzea ahalbidetzen duten gakoak ezagutu nahi ditugu.

Bazter horiek itxuraz politikoa dena baino haratago doaz, baina politizazio-tresnak izan daitezke, komunaren defentsara jotzen duen terminoaren zentzu positiboan. Askoren artean, artea, adierazpen ludiko hutsa izan beharrean, komunitate garapenaren arkitekturarako tresna bikaina izan daitekeela aztertuko dugu. Horregatik, ikastaro honetan, musika, antzerkia edo erakusketa artistikoaren bidez, begirada elikatzen laguntzen duten esperientziak izango ditugu mintzagai.

Finean, bilgune honen bitartez, erakundeetatik, herri mugimenduetatik zein herritarren aldetik, jardun komunitarioa erdigunean jartzen duten kaleidoskopioa irudikatu nahi dugu; komunitate logikaren defentsa ardatz hartuta, eta bazterretan eta hutsuneetan azpimarra eginaz.

## Objectives

Esku-hartze komunitarioko modu arrakastatsuak aztertzea erakundeen eta mugimenduen arloan.

Ekintza komunitarioaren logiken sakonean dagoen politizazio eta eraldaketa pertsonalaren gakoak aztertzea, bereziki espazio publikoan tradizionalki ez dauden subjektu sozialen kasuan.

Eguneroko beharrizan bizi eta ludikoetan oinarritutako lanketa periferikoen potentzialtasuna aztertzea, ekintza komunitarioa hedatzeko.

**In collaboration with**

Gipuzkoako Foru Aldundia
Diputación Foral de Gipuzkoa

# Program

## 11-09-2023

| | |
|---|---|
| 08:45 - 09:00 | Erregistroa / Registro |
| 09:00 - 09:15 | Institutional Opening session. Speaking order:<br>**Igor Ahedo** \| Euskal Herriko Unibertsitatea - Parte Hartuz Ikerketa taldeko arduraduna<br>**Miren Arbelaitz Garcia** \| GFA<br>**Irune Berasaluze Lazkano** \| GFA - Gobernantzako diputatua |
| 09:15 - 09:30 | Ariketa kolektiboa. Prometea |
| 09:30 - 10:30 | “Accion comunitaria y su construcción desde los margenes: empoderamiento, inclusión y mejora de las condiciones de vida “<br>**Ernesto Morales Morales** |
| 10:30 - 11:45 | Round table: “Komunitate ekintzaren esperientzia instituzionalak (I): inklusioa eta lurraldea “<br>Urretxuko bizikidetza mahaia<br>**Nerea Zubillaga Herran** \| EHU - Parte Hartuzeko ikerlaria<br>**Ioritz Berra Juaristi** \| Zaldibia - Alkatea<br>Lurraldea: Zaldibiko esperientzia<br>**Xotil Natke Miguez** |
| 11:45 - 12:15 | Pausa café |
| 12:15 - 14:00 | Round table: “Komunitate ekintzarako irakurketak absentzietatik“<br>Ekintza komunitarioa inklusiotik<br>**Imanol Legarda Díaz-Aguado** \| SOS Arrazakeria - SOS Arrazakeria<br>**Azzaldine El Hamdi**<br>Zaurgarritasun sozioekonomikoaren ahotsa: Trabajadoras no domesticadas<br>**Isabel Quintana Cantero** \| Trabajadoras no domesticadas - Taldeko bi kide<br>Kalexka Elkartea<br>**Carolina Vázquez Arjonilla** \| Kalexka elkarteko erabiltzailea<br>**Mari Mar Jimenez Ramirez** \| Kalexka |
| 14:00 - 16:00 | Etenaldia |
| 16:00 - 18:00 | Round table: “Solasean. Ikaskuntzak magikotik - Komunitate-ekintzarako irakurketak artetik“<br>Harrotu Ileak. Artaziak eta Tabakalera<br>**Itziar Imaz Ganzarain** \| Tabakalerako Hezkuntza arduraduna<br>**Irati Seijo Diez** \| Artaziak<br>**Adam Eloirdi**<br>**Mohammed Zengah** |

La Fundició cooperativa

**María Dolores Fernández Indiano** | La Fundició Coop. - Arte comunitario
**Laia Ramos Segura** | La Fundició Coop. - Arte comunitario

Amara Berriko antzerki herrikoia

**Ines Huarte Gonzalez** | Amara Beriko Antzerki taldea - Antzerki taldeko kidea
**Amaia Agirre**

---

## 12-09-2023

09:00 - 09:15 Ariketa Kolektiboa.Prometea

---

09:15 - 10:15 Round table: “Solasaldia: Ekintza Komunitarioaren ezinak eta eginak “

**Mari Luz Esteban Galarza** | EHU - EHUko irakaslea eta AFITeko koordinatzailea
**Eva Salaberria Artano** | Donostiako Udala - Donostia Lagunkoia Hiri Planaren Arduraduna

---

10:15 - 11:30 Round table: “ Ekintza komunitarioko esperientzia instituzionalak (II) - Osasuna eta hezkuntza“

Hezkuntzako komunitarioa: Antzuolako herri eskola

**Maitane Basasoro Ziganda** | EHU - Irakaslea eta ikerlaria

Ekintza komunitarioa eta osasun mentala: Activament taldearen esperientzia

**Hernan María Sampietro** | Activament - Vocal de Drets

---

11:30 - 12:00 Pausa café

---

12:00 - 14:00 Round table: “ Aprendizajes desde lo común- Lecturas para la acción comunitaria desde los movimientos sociales“

Baionako herri auzoen antolaketa

**Sébastien (Xebax) Christy** | Ekimeneko kidea

Basoa. Defendatzaileen etxea

**Iosu Murgia Gonzalez de Mendoza** | Basoa. Defendatzaileen etxea (Artea) - Ekimeneko kidea

Astra Gernika

**Joana Olabarria** | Astra. Gernika - Ekimeneko kidea

---

16:00 - 18:00 **Tailer parte hartzailea. Prometea**

---

## Directed by



### Igor Ahedo

EHU Partehartuz

---

Politika Zientzietan doktorea eta EHUko Politika eta Administrazio Zientzien Saileko irakaslea. Parte Hartuz taldeko ikertzaile nagusia da, eta UPV/EHUko Gizarte, Politika eta Kultura Doktoretza Programaren arduraduna. Ikerketen artean, honako hauek nabarmentzen dira: Hezkuntza ekintza, genero-desberdintasunak modu kooperatiboan argitzeko eta kudeatzeko (Emakunde, 2022); Unibertsitate Legearen erreformaren gakoak eta erronkak: parte-hartze prozesu bat (Unibertsitate Ministerioa, 2021) eta "Zientziaren eta gizartearen arteko harremanari buruzko azterlana, Urdaibaiko OEren garapen iraunkorrerako ezagutza sortzeko estrategia diseinatzeko" (Eusko Jaurlaritza, 2020). Bere azken argitalpenen artean honako hauek daude: "When the Cinderellas unite", International Journal of Action Research (2022 ); "How can critical deliberative theory help to solve the methodological challenges of evaluating from a gender + ive?", Evaluation (2020 ) edo "Emakumeen zapalkuntzak eta erresistentziak azaleratzen zumarragan: parte hartzeko demokrazia intersekzionala", Feminismos (2019). Euskal Berdintasunaren Legearen Ebaluazio Kualitatiboaren arduraduna izan da (2016)



### Andere Ormazabal Gaston

EHU Partehartuz, Irakaslea

---

Andere Ormazabal (Donostia, 1981). Politika eta Administrazio Zientzietan, Soziologian eta Antropologian lizentziaduna eta Politika Zientzietan doktorea da, eta Partaidetza eta Komunitate Garapena (2017) eta Ikasketa Feministak eta Generokoak (2010) masterrak egin ditu, denak Euskal Herriko Unibertsitatean. EHUko Politika eta Administrazio Zientzien Saileko irakaslea da. Parte Hartuz Ikerketa Talde Kontsolidatuaren baitan, ondorengo ikerketa lerroak jorratzen ditu: partaidetza, herri mugimenduak eta gobernantza. Joxemi Zumalabe Fundazioko kidea da.

# Teachers



### Amaia Agirre

---



### Zorione Aierbe

Prometea

---



### Maitane Basasoro Ziganda

UPV/EHU

---

Hezkuntza Zientzietan doktorea, Psikodidaktikan masterra eta Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan graduatua. 2022an defendatu zuen bere doktoretza tesia, “Ikasleen parte-hartzea eskola demokratikoak eraikitzeko giltzarri. Irakasleen begirada berritu batetik abiatutako Antzuola Herri Eskolako hezkuntza proiektua” izenburupean. Egun irakasle atxikia da Donostiako Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia Fakultatean (UPV/EHU) eta bere ikerketa lanek demokrazia eta justizia soziala hezkuntzan, ikasleen partaidetza, eta pedagogia kritikoa dute ardatz.



### Ioritz Berra Juaristi

---



### Sébastien (Xebax) Christy

Alda

---



### Azzaldine El Hamdi

---



### Adam Eloirdi

---



### Mari Luz Esteban Galarza

UPV/EHU, Irakasle titularra

---

Mari Luz Esteban gained a Bachelor’s degree in Medicine and Surgery (UPV/EHU, 1983) and was a Family Planning doctor in Basauri (Bizkaia). In 1993 she gained a doctorate in cultural anthropology at the University of Barcelona. Since 1988 she has been at the UPV/EHU, where she is a tenured lecturer in Social Anthropology and in charge of the Doctoral Programme in Feminist and Gender Studies, and AFIT-Feminist Anthropology Research Group. Her most important publications are: Antropología del cuerpo. Género, itinerarios corporales, identidad y cambio (Edicions Bellaterra, 2004), Crítica del Pensamiento Amoroso (Edicions Bellaterra, 2011) and Feminismoa eta politikaren eraldaketak (Susa, 2017). He has also written two books of poetry: Amaren heriotzak libreago egin ninduen (Pamiela, 2017) eta Andrezaharraren manifestua (Pamiela, 2019).



**María Dolores Fernández Indiano**

---



**Ines Huarte Gonzalez**

EHU

---



**Itziar Imaz Ganzarain**

---



**Mari Mar Jimenez Ramirez**

KALEXKA ELKARTEA, RESPONABLE ENTIDAD/COORDINADORA TECNICA

---

MARI MAR JIMENEZ RAMIREZ PSICOLOGA - EDUCADORA SOCIAL - COORDINADORA TECNICA KALEXKA ELKARTEA Actualmente responsable y coordinadora de distintos servicios tanto de competencia municipal como foral en el contexto de la Exclusión Social. - Servicio de Inclusión Social y Atención a Mujeres Victimas de Violencia Machista de la Diputación Foral de Guipuzcoa: Programa de Acompañamiento Especializado (PAE), Viendas con Apoyos, y Servicio Foral de Acompañamiento (SEFAC). Servicios Sociales de Base del Ayuntamiento de Eibar, Elgoibar y Zarautz: Programa de Intervención Socioeducativa con personas en Situación de Riesgo de Exclusión Social.



**Imanol Legarda Díaz-Aguado**

SOS Racismo

---

Ikusentzuneko Komunikazioan graduatuta, Hezkuntza Artistikoan eta Nazioarteko Lankidetza eta Garapeneko Master ikasketak. SOS Arrazakeria Gipuzkoan egiten du lan teknikari gisa, Hegoaren bitartez EHUn irakasle gisa kolaboratzen du eta Emaús Fundación Social, Jesuit Refugee Service eta Caribe Afirmativo bezalako elkarteetan aritu da ere. Giza Eskubideen defentsan egiten du lan hirugarren sektoretik eta herri mugimenduetatik, komunikazioan, partaidetzan, inzidentzia politikoan eta hezkuntza eraldatzailean. Nagusiki jorratu dituen gaiak arrazakeria, migrazioa eta nazioarteko babesa dira batetik, eta genero aniztasuna eta aniztasun sexuala bestetik.



**Ernesto Morales Morales**

---

Ernesto Morales Morales Doctor en Políticas Públicas y Transformación Social por la Universidad Autónoma de Barcelona. Ha desarrollado su trayectoria profesional en los ámbitos de la acción comunitaria, la economía solidaria, los servicios sociales y la participación ciudadana. A finales de los 90 y principios de 2000 trabajó en el impulso de Planes de Desarrollo Comunitario de la mano de las asociaciones de vecinos en barrios de vivienda social de toda Cataluña. Entre los años 2007 y 2009 residió en la ciudad de Porto Alegre-Brasil, donde se vinculó a movimientos sociales urbanos y de educación popular, y realizó una investigación sobre el presupuesto participativo, base de su futura tesis doctoral. En el 2009 se incorporó al IGOP-UAB y sobre el año 2015 asumió la coordinación de "la escuela del IGOP ", un "espacio- proyecto" de transferencia y coproducción de conocimiento orientado al impulso de la investigación-acción, la formación, y la innovación, principalmente , en el ámbito comunitario y las políticas sociales, desde donde se colabora con instituciones y administraciones públicas, asociaciones, colectivos y profesionales.



**Iosu Murgia Gonzalez de Mendoza**

---



**Xotil Natke Miguez**

University of Innsbruck

---

Architect, Carpenter, Photographer, and Political Activist based between San Sebastian and Innsbruck. Working as a research associate at the Architecture Faculty of the Innsbruck University (Institute for Design-Studio2) since 2018 teaching design methodology and theory. The academic works draw on the search for new collaborative design methodologies, trying to merge social and political processes with new technologies to generate spatial interventions as research for a contemporary design process. In 2017 he submitted the master thesis „Habitat: Utopia“ at Innsbruck University, awarded with the Dean Price. Being also a carpenter and active in several social movements and different European architecture and art collectives, his work extends from the research over the design to the production and construction. Latest Works: Exhibition “Potenziale 3” – Innsbruck – “Common Ground” - 2021 in collaboration with Walter Prenner, Verena Rauch, Eleni Palles Exhibition Vorarlbergmuseum – Bregenz – “Römer oder so“ - 2020 in collaboration with Eric Sidoroff, Celia Di Pauli and Stefan Maier Publication – „Lebensraum Schwaz 2040“ – 2020 – Softcover 620 p. in collaboration with Eric Sidoroff, Andreas Flora, Birgit Brauner and Christoph G.



**Joana Olabarria**

---



**Isabel Quintana Cantero**

TRABAJADORAS NO DOMESTICADAS

---

Licenciada en Derecho y Procuradora de profesión. Participo en Colectivos feministas desde 1982 y desde 1990, en actividades vinculadas directamente con el sector de trabajadoras de hogar y cuidados. En estos momentos, formo parte activa de Trabajadoras No Domesticadas en Bilbao y el Centro Asesor para Mujeres Argitan, en Barakaldo; en ambas Colectivas, desde sus inicios. También colaboro puntualmente con Mujeres con Voz de Getxo.



### Laia Ramos Segura



### Carolina Vázquez Arjonilla



### Eva Salaberria Artano

Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián, Coordinadora

Licenciada en Historia General de España y del País Vasco, por la Universidad de Deusto. Desarrolla desde 1.989 su trabajo profesional en el Ayuntamiento de Donostia/San Sebastián, primero como gestora cultural en el Departamento de Juventud, y después en el departamento de Barrios y Participación Ciudadana, área que dirige entre 1.996 y 2009. En esta fecha, y hasta julio de 2013, asume la Coordinación-Gerencia del proyecto San Sebastián Capital Europea de la Cultura 2016. En la actualidad coordina el Plan de Ciudad Donostia Lagunkoia. Ha participado, representando al Ayuntamiento de San Sebastián, en diferentes organismos y redes, estatales e internacionales y colaborado como ponente en acciones formativas organizadas por entidades de diferente índole en temas relacionados con la promoción de la participación de la ciudadanía en la construcción de lo colectivo y la mejora de la calidad democrática en el ámbito local.



### Hernan María Sampietro

Hernan Sampietro. Psicólogo social. Usuario de salud mental. Coordinador de proyectos y activista de

ActivaMent Catalunya Associació. Co-responsable del programa de Grupos de Ayuda Mutua, Responsable del equipo de formadores, miembro del equipo de investigación y consultoría social. Doctorando de la Universitat de Barcelona.




### Irati Seijo Diez


Irati Seijo Diez (Lekeitio, 1992) hezitzailea naiz, besteren artean. Ikasketaz pedagogoa eta orain arte hezkuntza ez arautuko eremu ezberdinetan aritua. Artaziak, hezkuntza artistikoan eta bitartekaritza kulturalean aritzen den gizarte ekimeneko kooperatibako (https://artaziak.eus/eu/) langilea azken hiru urteetan. Lan jarduna Tabakalerako hezkuntza sailean burutzen dut beste bost kiderekin batera. Lantaldearekin izandako hartu-emanaren bidez ari naiz arte hezkuntzara hurbilketa egiten, bertan, hezkuntza eraldaketarako pistak daudenaren susmoaz.




### Mohammed Zengah





### Nerea Zubillaga Herran

Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU


NEREA ZUBILLAGA HERRAN https://orcid.org/0000-0001-6270-6031 Es graduada y doctora en trabajo social. Ha completado su formación con el Master en Participación y Desarrollo comunitario y posgrado en Gestión e innovación en Servicios Sociales, todo ello por la Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU. En la actualidad forma parte del grupo de investigación consolidado Parte Hartuz y sus líneas de investigación se centran en el trabajo social y los servicios sociales, especialmente en lo comunitario. En especial, investiga la participación y lo comunitario en los servicios sociales, aunque también participa en investigaciones que tienen que ver con la supervisión en trabajo social como con la diversidad y la migración, junto con distintos ayuntamientos.

# Registration fees

| FACE-TO-FACE | UNTIL 31-05-2023 | UNTIL 11-09-2023 |
|---|---|---|
| joung fee | 25,00 EUR | 59,00 EUR |
| General | - | 84,00 EUR |
| Reduced fee regular | - | 71,00 EUR |
| Registration exemptions | - | 59,00 EUR |
| Courses for everyone | - | 71,00 EUR |
| Professionals and students of euskaltegis or approved self-learning centers | - | 71,00 EUR |
| Elkar | - | 71,00 EUR |

| LIVE ONLINE | UNTIL 31-05-2023 | UNTIL 11-09-2023 |
|---|---|---|
| joung fee | 25,00 EUR | 59,00 EUR |
| General | - | 84,00 EUR |
| Reduced fee regular | - | 71,00 EUR |
| Registration exemptions | - | 59,00 EUR |
| Courses for everyone | - | 71,00 EUR |
| Professionals and students of euskaltegis or approved self-learning centers | - | 71,00 EUR |
| Elkar | - | 71,00 EUR |

# Place

## Miramar Palace

Pº de Miraconcha nº 48. Donostia / San Sebastián

Gipuzkoa